

Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Ordizian, **2013ko apirilaren 25ean**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.


KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jn.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra and.

Beste BERTARATUTAKO BATZUK:



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2013KO martxoaren 7ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.
.....3.orr.
- 2.- 2012ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea
.....3.orr.
- 3.- 2012ko gastuak 2013ko Aurrekontuetara eranstea onartzea.
.....5.orr.
- 4.- Ekonomia eta Finantza Plana onartzea Aurrekontu Egonkortasuna lortzeko.
.....6.orr.
- 5.- Kreditu transferentzia onartzea.
.....8.orr.
- 6.- Osoko Bilkuran adierazteko finantza eta aurrekontu informazioa
.....9.orr.
- 7.- Alkatetza Dekretu bidez onartutako kredituen aldaketen kontu ematea.
.....10.orr.
- 8.- Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal ordenantza arautzailearen aldaketa.
.....11.orr.
- 9.- Telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresi udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta berezi ustiatzaegatiko tasak ezartzea arautzen duen ordenantza bertan-behera uztea.
.....13.orr.
- 10.- "San Joan-22" HIEren Plan Partzialaren Testu Bateratua behin betiko onartzea.
.....15.orr.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK


GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.00ak.

AMAIERA ORDUA: 19:45ak.





Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2013ko martxoaren 7ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2013ko martxoaren 7ko ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Gutierrez and.

15.orrigo 7. ataleko Santamariaren interbentzioari dagokionez, adierazi du ez dagoela zehatz esandakoa jasota; aho batez idazkariari eskatu zaio grabazioan jasotzen dena hitzez-hitz jartzeko aktan, eta konprobazioa egin ondoren hau da zehatz Santamaria jaunak esandakoa: "matxismoa txarra bada, feminismoa ere kontrakoa da".

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.


Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako akta zuzenketa egin eta gero, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.- 2012ko Aurrekontuaren Likidazioaren berri ematea.

Alkateak Berezko Aurrekontuetako likidazioak, "San Jose" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioak eta "Herri Antzokia" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa onartu ondoren, Gipuzkoako Toki erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua betetzeko, likidazio hauen berri ematen da Osoko Bilkuran:



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

	Aurrekontuen emaitza	Diruzaintzako aurrezki garbia
Berezko Aurrekontua	185.617,15	383.932,88
"San Jose" Erakunde Aut.	31.375,30	34.512,53
"Herri Antzokia" Erak.Aut.	100.012,82	60.879,06

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jaunak:

Kontuhartzaileari eskatu dio aurrerantzean teknologi berriak erabil ditzala honelako azalpenak egiteko.

Kontuhartzaileak:

Erantzun dio esanez nahiz eta teknologia berririk ez erabili, puntua ahalik eta ondoen azaltzen saiatuko dela aurkeztutako agiriekin.

Kontuhartzailearen aurkezpena.


Adierazi du krisi egoeran gaudela baina hala ere bilakaera nahiko ona izan dela esan dezakeela.

Altxortegiko soberakina positiboa izan da eta aurrekontuko emaitza ere bai.

San Jose Egoitzako eta Herri Antzokiko kontuak ere ondo itxi dira.

Jarraian, Udalaren kontuak aztertu ditu ondorengo datuak azalduz:

- Altxortegiko soberakina 1,291.945,39 eurokoa da, baina kontuan izanda saldo kobragaitzak, kreditu gehikuntzak eta kreditu gehigarriak 2012ko gastuak 2013ko aurrekontura sartzeko, soberakin erabilgarri txikia geratzen da, 51.966,86 eurokoa.
- Puntu honetan, eta kontuan izanda zenbat aldiz azpimarratu den saldo kobragaitzen kopuru handia (908.012,51 euro) , esan du kopuru hau dela azkeneko 22 urteetan kobratu gabe geratu dena, eta urte hauetan likidatutakoaren estimazioa egin duela, eta emaitza dela saldo kobragaitzak likidatutako guztiaren %2a direla.
- Urteko emaitza 185.617,15 eurokoa da, eta kontuan izanda doikuntzak eginda lortu den datua dela, horrek erakusten digu diru-sarrerak eta gastuak orekatuta daudela. Hori dela eta, datu esanguratsua da.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

- Kreditu gehigarriak, aurreko urteetakoekin alderatuta jaitsi egin dira. 2012an, Aurrekontuko hasierako kredituen %1,08 izan da eta aurreko urteetako portzentaiak %5,18, %4,84, %2,96 eta %1,35 izan ziren.
- Diru-sarrerak aurreikusitakoak baino handiagoak izan dira. Zerga zuzenak 1. kapituluan %2,17 handiagoak, 2. kapituluan (eraikuntza zerga) %17,95 handiagoak eta 3. kapituluan (tasak) %16,6 handiagoak. Hala ere, azpimarratu du kontuan hartu behar dela benetan kobratzen dena eta azkeneko urteetan zehar portzentaiak beherantz doazela pixkanaka. Kontuan izan beharko da egoera berri hau Aurrekontuak prestatzean.

Jakinaren gainean geratu da Udal Osoko Bilkura.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3.- 2012ko gastuak 2013ko Aurrekontuetara eranstea onartzea.

Proposamena

2012 urtean zehar aurrekontu gordailurik gabeko gastu batzuk egin ziren partida batzuetan.

2012 urtea itxi baino lehen, gainezkatzeko hauek konpontzera jo genuen, Kontabilitatetik 40.804,14 eurotik gorako fakturak kenduz.

Gastu hauek 2013ko Aurrekontuei eranstea, hiru aukera daude:

1- 2013ko partidetako kredituak handitzea erantsi behar diren gastuen neurri berean.


2- 2012ko gastuak bere gain hartuko dituzten partidetako arduradunei eskatzea 2013rako aurreikusitako gastuak baliogabetzeko 2012ko gastuak sartzen diren neurrian.

3- bi aukerak bateratzea burututako gastuaren boluntariotza mailaren arabera. Gaia onartzea premiazkoa da, fakturak ordaindu gabe baitaude.

Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2013ko apirilaren 17ko Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordean gaia aztertu eta gero, ondorengoak aurkezten da Osoko Bilkuran onartzeko:

AKORDIO PROPOSAMENA

2012 urteko gastuak 2013 urteko Aurrekontuetan sartzea onartzea, guztira 40.804,14 euro.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

2013ko Aurrekontuen kreditu gehigarrien 1. espedientea onartzea, 40.804,14 eurokoa, gastu hauen gehikuntza finantzatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaileak:

Puntu honi buruzko xehetasunak eman ditu, eta berriro Plenoko Gai Batzordean egin zuen aklarazio bera egiten du, azkenik 2013ko Aurrekontuetara eransten diren gastuak, ez 39.536,14 euro, baizik eta 40.804,14 euro direla, azken orduan D'elikatuz-eko faktura batzuk ekarri dituztelako.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Ekonomia eta Finantza Plana onartzea Aurrekontu Egonkortasuna lortzeko.


Proposamena

2013ko martxoaren 7an onartu zen 2013ko Aurrekontua 149.352,00 euroko defizitarekin, KES terminoetan (Kontuen Europako Sistema).

Egoera honen aurrean Udalak Ekonomia eta Finantza Plan bat onartu behar du, datorren urtean egonkortasun ekonomikoa lortu ahal izateko.

Kontuhartzaileak, Gobernu Taldearen irizpideak jarraituz, 2013-2016 epealdirako aurrekontu bat prestatu du, Aurrekontu Egonkortasun egoerara itzultzeko.

Beste alde batetik, 2013ko apirilaren 11ko 329 zbkiko. Dekretu bidez onartu zen kreditu transferentzuen 1. espedientearen ondorioz, beharrezkoa da Finantza Plan berri bat idaztea.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Kontuhartzaileak idatzi du eta ondorioztatu du hau onartzeak ez duela 2013-2016 epealdiko aurreikuspena aldatzen.

AKORDIO PROPOSAMENA

Ekonomia eta Finantza Plana onartzea 2013ko Aurrekontua onartzean bete gabeko Aurrekontu Egonkortasunera itzultzeko.

Kreditu transferentzien 1. zenbakiko espedienteen onarpenaren bidez idatzitako Ekonomia eta Finantza Plana onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile in:

Adierazi du 2013ko aurrekontuak nahiz eta egonkortasun legea urratu, posible dela urraketa hau ematea Gipuzkoako kasuan, betiere datorren urtera begira eta orekara bueltatzeko dagokion Ekonomia eta Finantza Plana onartzen bada; bukatu du esanez kreditu aldaketaren bat egiten den bakoitzean plana eguneratu egin behar dela.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

5.- Kreditu transferentzia onartzea.

Proposamena

Atez ateko hondakinak biltzeko sistema ezartzeko euskarri-lanetarako SPORA enpresa kontratatzeko asmoa dago, eta ez dago horretarako aurrekontu kreditu zehatzik.

Bestalde, 226.324.00.06 partidako kreditu-zati bat erabili daitekeela ikusten da.

AKORDIO PROPOSAMENA

226.324.00.06 partidatik 227.442.10.07 partidara 14.350,00 euroko kreditu transferentzia egitea onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jn:

Kreditu transferentzia bertan-behera utzi eta halaber zabor inguruko mahaia guztien artean osatzea eskatu du, eta mahai horretan ateratzen diren ondoriotik erabaki Spora enpresaren lan hori egin edo ez; adierazi du lan hau egitea mahai osatzeko planteamenduaren aurka doala, eta horregatik berriro lan hau etetea eskatu du.

Alkate jn:


Adierazi du kreditu transferentzia egitea ezinbestekoa dela, lana dagoeneko martxan delako; Santamaria jaunari esan dio hori ez dagoela zabor inguruko mahaia osatzeko gaiaren aurka. Bukatu du esanez kreditu transferentzi honekin aurrera joko dutela.

Kontuhartzaile jn:

Adierazi du Legeak esaten duela kreditu aldaketa egin arte, ezin dela kontratazioa egin, eta hori kontuan hartuta bere ingera egin du.

Alkate jn

Alkateak esan dio bazeukala hori esatea honera etorri baino lehen.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Kontuhartzaile in:

Erantzun dio orain jakin izan duela esleipena egin zegoela, berez kreditua onartu arte egin gabe behar zuena.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- finantza eta aurrekontu informazioa

21/2003 Foru Arauak ezartzen du, gutxienez hiru hilean behin Alkateak Osoko Bilkuran finantzen eta aurrekontuen inguruko informazioa emango duela.

Aurretik 2006-03-30ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeko irizpenaren bidez eta ondoren 2006-03-30ko Udaleko Osoko Bilkuraren bidez onartu zen hiru hiletik behin ondorengo informazioa ematea:

- Funtzioen balantzea.
- Diru-sarreraren Aurrekontu Exekuzioa.
- Aurrekontu krediturik gabe burututako gastuak
- Udal Diruzaintzaren egoera


2013-04-17ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aztertu ondoren, Osoko Bilkura bideratzen da 2013-03-31ko informazioa.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez da izan.

Jakinaren gainean geratu da Udal Batzarra.





Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Alkatetza Dekretu bidez onartutako kredituen aldaketen kontu ematea.

Gipuzkoako Toki Erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua araber, Osoko Bilkuran Aurrekontuen aldaketen berri eman behar da.

Aurten oraingoz onartutako aldaketak honakoak dira:

Kreditu transferentziak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
1	329	10.500,00
Kreditu gehigarriak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
1		
Kreditu eransketak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
1	239	291.161,88
Kredituak gaitzea		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
1		

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:


Kontuhartzaile in

Adierazi du bidalitako taulan honako akats hau dagoela: Ez da kreditu gehigarria, baizik eta kreditu transferentzia.

Jakinaren gainean geratu da Udal Batzarra.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

8.- Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal ordenantza arautzailearen aldaketa.

Proposamena.

2012ko abenduaren 12an ohiko deialdian egin zen osoko bilkuran onartu zen Terraza eta Mahaitxoak kalean ipintzeko Ordenantza Arautzailea, eta 38 zbiko eta 2013ko otsailaren 25ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen behin betiko izaera hartuz.

Dokumentu hau aldatu egin behar da zenbait artikulua edota kontzeptu argitzeko eta indarrean dagoen Ordenantzaren aurkitutako zenbait hutsune osatzeko. Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikulua arabera, osoko bilkurari dagokio Ordenantza eta Araudiak onartzea.

Aipatutako legearen 49 artikulua arabera, tokiko ordenantzak onartzeko edota ordenantzen aldaketak onartzeko ondorengo prozedura jarraituko da:

- Aldaketaren hasierako onarpena osoko bilkuran.
- Jendaurreko informazioa eta interesatuei entzunaldia ematea hogeita hamar eguneko epean onartutako aldaketaren inguruko erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko.
- Aurkezten diren erreklamazio eta iradokizunen ebazpena.

Hori guztia ikusita, eta 2013ko apirilaren 17ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako AKORDIO PROIEKTUA hartzea proposatu da.


AKORDIO PROPOSAMENA

1.- Hasierako onarpena ematea 5. artikuluko 3. atalari, 8. artikuluari, 13. artikuluko 1. atalari eta 17. artikuluari, ondorengo puntuetan:

5. Artikulua, 3. paragrafoa

Honakoa dioen tokian: “terrazak, alboko babesak barne, luzetara gehienez hartuko duen espazioa ez da jarduera nagusia egiten den establezimenduaren fatxadaren luzera baino handiagoa izango”

Honakoa esan beharko luke: “Terrazaren espazioak ez du jarduera nagusiko establezimenduaren fatxadaren luzera gaindituko, ondoan dituen merkataritzako lokalen edo gainerako lokalen idatzizko baimenik ez badu behintzat, eta etxebizitza eta gainerako lokaletara igartzeko bidea ez dute oztopatuko”.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Horrekin ibilgailuak sar daitezkeen kaleetako eta oinezkoen kaleetako espaloietako terrazen erregimena parekatzen da.

8. Artikulua, 1. paragrafoa

Honakoa dioen tokian: “Altzariak oro har (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, etab.) zaintze-egoera onean mantendu beharko dira beti”.

Honakoa esan beharko luke: Altzariak oro har (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, etab.) zaintze-egoera onean mantendu beharko dira beti eta kaletik kendu beharko dira establezimendua ixten denean”.

13. Artikulua, 1. paragrafoa

Honakoa dioen tokian: “Iraupen ezberdineko lizentziak eman ahal izango dira:

- Urte batekoa
- Udarako lizentziak: Maiatzaren 1etik irailaren 31era.
- Herriko festetarako

Honakoa esan beharko luke: “Iraupen ezberdineko lizentziak eman ahal izango dira:

- Urte batekoa
- Herriko festetarako

17. artikulua, 1. paragrafoa, d atala

Honakoa dioen tokian: “Ez jaso mahai eta aulkiak bide publikoan sakabanatuta utzita”.

Honakoa esan beharko luke: “Ez jaso mahai eta aulkiak bide publikotik”


2.- Ordenantza Fiskalen aldaketak jendaurrean argitaratzea Iragarki Oholean jarrita eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta 30 eguneko epean, interesatuei udalbatzak aztertuko dituen erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko entzunaldirako aukera emanez.

3.- Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, Ordenantzak behin betiko onartutzat emango dira akordio berririk hartzeko beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Asenjo in:

Adierazi du nahiz eta 2012ko abenduaren 20ko Udal Osoko Bilkuran onartu ordenantzaren aldaketa eta testu osoa 2013ko otsailaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, ikusi da alde batetik ostalariak puntu bat aldatzeko eskatu dutela eta bestetik hiru puntutan akats txiki batzuk daudela, eta hori dena zuzentzeko prestatu da aurkezten den ordenantza.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Telefonía mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresí udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta berezi ustiatzaegatiko tasak ezartzea arautzen duen ordenantza bertan-behera uztea.


Proposamena

Telefonía mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta berezi ustiatzaegatiko tasak ezartzea arautzen duen ordenantza bertan-behera uztea.

IKUSITA:

Ordiziako Udalaren 2012ko urriaren 24ko Udal Osoko Bilkuraren akordioa, 2013ko zerga eta tasei dagokiena, 2012ko abenduaren 21eko 243 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, besteak beste, telefonía mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta berezi ustiatzaegatiko tasak ezartzea arautzen duelarik.

Aipaturiko Ordenantzaren aurka, aurkeztutako auzi-administrazio errekurtsuak.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

KONTUAN HARTUTA:

EUDELekeo bidalitako eredia jarraituz egindako Ordenantza hau ez dela inoiz aplikatu, hainbat epai daudelako non garbi geratzen den tasa hori ezin dela kobratu,

ERABAKI PROPOSAMENA:

Telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta berezi ustiatzeagatiko tasak ezartzea arautzen duen ordenantza bertan-behera uztea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Idazkari jn

Alkate jaunak eskatuta bezala, idazkariak puntu honen nondik - norako labur bat egin du eta garbi utzi du indarrean dagoen arautegiaren arabera tasa hau ezin dela kobratu.

Kontuhartzaile jn

Bere aldetik gehitu nahi izan du, gai honi buruz izan den auzian Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari batek eraman zuela aholkularitza eta udalei laguntzeko ardura.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

10.- "San Joan-22" HIEren Plan Partzialaren Testu Bateratua behin betiko onartzea.

Proposamena

"San Joan-22" Hirigintza Interbentzio Eremuari dagokion Plan Partzialaren aldaketa onartzeko bideratu den espedientearen berri ematen da, Ordizia Lantzen SA y otros-ek eskatuta CB2 Arquitectura SLP enpresak egindako dokumentuaren arabera.

2012ko abenduaren 10eko 1083 zenbakiko Alkatetza ebazpen bidez hasierako onarpena eman zitzaion lehenik, eta ondoren legeak ezartzen duen eran eta denboran jendaurrean argitaratu zen, interesdun jabeei jakinarazpena bidali zitzaien, Udaleko Iragarki-Oholean ipini zen, 2013ko urtarrilaren 7ko 4 zenbakiko GAOn argitaratu zen, eta 2013ko urtarrilaren 4ko eguneroko egunkarian argitaratu zen, eta epea amaituta eta da alegaziorik aurkeztu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Sailaren, Uraren Euskal Agentziaren eta ADIFen txostenak eta Udal Arkitektu Teknikoaren txostena aztertu dira dokumentua behin betiko onartzeko.

"San Joan 22". HIEko Plan Partzialaren Aldaketaren Testu Bateratua aurkeztu da eta apirilaren 15eko Obra eta Hirigintza Delegazioko irizpena.

Apirilaren 17ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak, ondorengoa aurkeztea onartu zuen:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- "SAN JOAN-22" HIEren PLAN PARTZIALAREN Testu Bateratua behin betiko onartzea.

2. Behin betiko onartu izanaren akordioa argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, araudiaren testu osoa barne, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea hamar eguneko epean, eta baita sustatzaile eta jabeei.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Eztabaida


Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Idazkari jn

Alkate jaunak eskatuta bezala, idazkariak espedienteari buruzko azalpen batzuk eman ditu, azpimarratuz hirigintza arautegian xedatutakoaren arabera burutu dela tramitazio osoa.

Dubreuil jn:

Honako bi galdera hauek egin ditu:



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

- Hirigintza Aholku Batzordetik pasatu behar da espedientea?
- Hasierako onarpena eman eta gero aldaketak izan dira?

Alkate jn:

Erantzun dio hasierako onarpena eman aurretik pasatu zela Hirigintza Aholku Batzordetik, eta espedientean ez daudela aldaketak, baizik eta Udal arkitektoak aipaturiko akatsak zuzendu direla, hori dena kontuan hartuta ez dagoela Hirigintza Aholku Batzordetik pasatu beharrik.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

11.- Eskaerak eta galderak

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.